



ELAren BALORAZIOA ESPAINIAKO GOBERNUAK ADOSTUTAKO MURRIZKETA BERRIEN AURREAN

2012ko Apirilak 23

**ELAren BALORAZIOA ESPAINIAKO GOBERNUAK ADOSTUTAKO
MURRIZKETA BERRIEN AURREAN**

2012ko Apirilak 23

O- SARRERA

Espainiako gobernuak apirilaren 20an murrizketa sozial larriak erabaki zituen hezkuntza eta osasungintzari dagokionez. Apirilaren 21eako BOEan hezkuntzari buruzko Errege Lege-Dekretua argitaratu zen. Osasungintzako murrizketak beste dekretu batean jasoko dira, eta hori argitaratzeke dagoen arren, ildo nagusiak ezagutarazi ziren, eta hauek jorratuko ditugu dokumentu honetan. Bestalde, gobernuak legegai bat erabaki zuen telebista autonomiko publikoen pribatizazioa bultzatzeko; honen edukia ere ez da ezaguna.

Osasun eta hezkuntzako murrizketen xedea gastu publikoa jaistera da, hain zuzen autonomia-erkidegoena, urtean 10.000 milioi euro inguru (BPGaren %1 inguru); hau espainiar gobernuak Bruselarekin hitzartu duen defizit murrizketaren zati bat da, zeina komentatu baikenuen martxoaren 30ean aurkeztu zen 2012ko aurrekontuen proiektuari buruzko gure iritzia eman genuenean.

Osasungintza eta hezkuntzako gastuan egin nahi duten murrizte handi honen ondorioa bi sistema horientzako kalte handia da, eta eragina herritar ia gehienek pairatuko dute, batik bat baliabide gutxien dutenek.

Unibertsitate mailako ez den hezkuntzako eta osasungintzako neurriak autonomia-erkidegoen eta Madrilgo Gobernuaren arteko bileretan erabaki ziren, apirilaren 16 eta 18an, hurrenez-hurren. Bilera hauetan Nafarroako Gobernuak adierazi du murrizketekin bat zetorrela. Eusko Jaurlaritzak, berriz, hezkuntzari dagokionez aurka dago, baina Osasun sailburuak bere arloari eragiten dien neurrietan “%80ean” ados dagoela esan du.

Murrizketa hauek Hego Euskal Herriko administrazioen eskumenei eragiten diete, esaterako, herri-administrazio guztietan 37,5 orduko lanaldia ezartzeko erabakiak. Beraz, erakundeek beren politikak erabakitzeko duten ahalmena hankapean hartzen dute, eta eskumenak zanpatzen direlako jakinaren gainean hartutako erabakiak dira. Euskal erakundeei ekintza politikoa exijitu behar diegu; ezin da onartu murrizketak aplikatzerik eta helegite bat aurkeztera mugatzea; izan ere, hoberenera jota hainbat urteren buruan erabakiko litzateke, eta bitartean murrizketak indarrean leudeke.

I- HEZKUNTZAKO MURRIZKETAK

Hezkuntzako murrizketak jasotzen dituen Errege Lege-Dekretuak honako neurri nagusiak aipatzen ditu, administrazio guztietarako oinarri-lege gisa:

a) Unibertsitate mailako ez den hezkuntza

Hauek dira erabakiak:

- **Irakasleentzako eskola-orduak gehitzen dira-** Haur- eta Lehen-Hezkuntzan gutxienez 25 eskola-ordu finkatzen dira (orain arte hori

gehienezko kopurua zen), eta 20 ordu gainerako mailetan; honek ez dio eragiten ikastetxeko zuzendaritza edo koordinazio funtzioei dagozkien murrizketei.

- **10 eskola-egunetik beherako irakasleen baja aldiak ez dira ordezkatu**- Ordezkoak izendatzeko irizpidea aldatuko da; hamar egunera iristen ez diren bajetan ikastetxe bertako langileek osatu beharko dute denbora. Irakasle titularrak behin-behinean ordezkatzeko bitarteko funtzionarioak izendatzea soilik izendapen hori eragiten duen egoera sortzen denetik hamar eskola-egun igarota egingo da. Erabaki honek ikastetxe publikoei zein baliabide publikoak jasotzen dituzten pribatuei eragiten die.
- **Gela bakoitzeko ikasle ratio handiagoa**- Hezkuntzako lege organikoan aurreikusten zen gehienezko ikasle kopurua %20 gehitzen da: 25 lehen-hezkuntzan eta 30 bigarrenean (hots, 30 eta 36 izango dira, hurrenez-hurren). Erabaki honek ikastetxe publikoei zein baliabide publikoak jasotzen dituzten pribatuei eragiten die.
- **Erdi- eta Goi-Mailako Hezkuntzaren Lege Organikoan aurreikusten ziren 2.000 orduko ziklo formatiboak atzeratu egingo dira**- Ziklo hauen hasiera bi urtez atzeratuko da.
- **Hezkuntzako Lege Organikoan jasotzen zen eginbeharra, gutxienik bi Batxilergo mota eskaini beharra, ezabatu egiten da**- Hau indargabetzea proposatzen da, hezkuntzako administrazioek erabaki dezaten ikastetxe bakoitzeko Batxilergo eskaintza.

b) Unibertsitate hezkuntza

Maila honi dagozkion erabakiak:

- **Tasa iguera**- Unibertsitateen zerbitzu akademikoei dagozkien prezio publikoak benetako kostutik gertuago egingo dira
 - Lehen matrikularen kostuak Gradu-tituluetan eta lanbide baterako gaitzen duten Masterretan kostu errearen %15 eta %25 bitartean osatuko dute.
 - Bigarren matrikulak kostu errearen %30 eta %40 bitartean osatuko du.
 - Hirugarren matrikulak, %65 eta %75 bitartean.
 - Laugarren matrikulak, ikasketen kostu errearen %90 eta %100 bitartean.
- **Irakasleen jarduera-erregimena**
 - Urtean 24 kreditutik 32ra handituko da gehienezko dedikazioa duten Ikertzen ari ez diren irakasle funtzionarioen jarduera.
 - Ikerkuntzan dihardutenek, berriz, gehienezko arduraren berdinarekin jarraituko dute, hots, urteko 24 kredituekin.
 - Ikerkuntzan goi maila iristen dutenen gehienezko arduraldia txikiagoa izango da, gehienez 16 kreditukoa. Honetarako goi mailako seiurteko bat egin behar izango da, eta aurrerago arautuko da.
 - Irakasle guztientzako ez dira eskola-orduak gehitzen; soilik batez ere irakaskuntzan lanetan dihardutenei.

- **Espainiako Gobernuari ahalmena ematen zaio Unibertsitateak sortu eta mantentzeko (eta, horrenbestez, desagerrarazteko) oinarritzko irizpideak ezar ditzan-** Autonomia-Erkidegoek erabakiko dute zentro edota graduak sortzea, aldatzea edo ezabatzea, baina betiere espainiar gobernuak ezarritako irizpideen baitan.
- **Graduko tituluetan gutxieneko ikasle kopurua exijitzen da-** Honekin titulu batean izan beharreko ikasle kopurua baldintzatu nahi dute. Eta hau azaltzeko diote ikastaroen %30ak hasterakoan ez daukala bideragarri izateko gutxieneko kopururik. Halaber, esaten dute unibertsitateetako eskaintzan %13ko soberakina dagoela.
- **Enpresei unibertsitate-tituluetan sarrera ematen zaie-** Unibertsitate publikoa pribatizatzeko urrats bat egiten da. Izen hanpatsu batekin, “unibertsitate eta enpresa arteko aliantza estrategikoen sorrera”, elkarrekin unibertsitate-tituluak lortzeko eskaintzak garatzea ahalbidetu nahi dute.

II- OSASUNGINTZAKO MURRIZKETAK

Esan bezala, osasungintzako murrizketak iragarri egin dituzte, baina dagokien Errege Lege-Dekretua ez da argitaratu; horrenbestez, gobernuak aipatu dituen ildo nagusiak hartuko ditugu aintzat. Hezkuntzarako gobernuak 3.000 milioiko murrizketa egin nahi du, eta 7.000 milioikoa osasun-gastuan. Besteak beste, honakoa moztu nahi du:

- **Gaixoen sendagaietan ordaindu beharrekoa gehitu-** Orain arte pertsona aktiboek ordaindu izan dute, errezetan emandako botikaren %40. Aurrerantzean, oro har portzentaje hori %50era igoko da, eta pentsiodunei %10 ordainaraziko diete. Uste denez sistema berri hau bi hilabete barru sartuko da indarrean. Gobernuak eman duen ondoko koadroak zehatzago jasotzen ditu aldaketak. Haatik, benetan zer erabaki den ezagutzeke dago.

	Aktiboak	Pentsiodunak	
Kotizaziopeko ez diren pentsiodunak eta iraupen luzeko langabeak	%0	%0	
Errenta aitortpena egitera behartuta ez dauden diru-sarrera dutenak	%0	%10	Gehienez ere hileko 8 €
Errenta aitortpena egitera behartzen duten diru-sarrerak dituztenak	%50	%10	Gehienez ere hileko 18 €
100.000 €tik gorako errentak	%60	%60	Gehienez ere hileko 60 €

- **Atzerritarrentzako osasun-arreta mugatzea-** “Osasun turismoa” delakoaren aitzakiaz, gobernuak atzerritarrei osasun-arreta muriztea erabaki du (ez dakigu zehazki nola). Antza, paperik gabeko immigranteei galarazi egin nahi diete osasun zerbitzua izatea, hain zuzen prekariedade egoerarik larriena bizi duen kolektiboari alegia.
- **Zerbitzu-kartera komuna ezarri, osasun-zerbitzu publikoek ematen duten arreta murrizte aldera-** Zerbitzu-kartera komunak honako kategoriak izango ditu, baina zehaztu gabe daude oraindik:
 - Arreta emateko oinarrizko zerbitzu-kartera komuna. Orain arte bezala, osasun-zentroetan edo soziosanitarioetan eskaintzen diren prebentzio, diagnostiko, tratamendu eta birgaitze zerbitzuak jasoko ditu, baita osasun-garraio urgentea ere; hauek guztiak finantzaketa publikoak estaltzen ditu.
 - Kartera komun gehigarria. Anbulatorio bidez ematen diren prestazioetan sartuko dira, zeinak dagoeneko erabiltzailearen ekarpena eskatzen baitute.
 - Zerbitzu gehigarrien kartera komuna. Osasun-prestazio ez izanik, zenbait patologiatarako ezinbestekotzat jotzen diren jarduera, zerbitzu edo teknikak jasoko ditu.
- **Erosketa-Plataforma Zentralizatu** bat sortuko da.
- **Giza-baliabideen ordenazioa-** Kategoria profesionalen katalogo homogeneoa egingo da, osasun-zentroen artean profesionalak mugitzeko aukera errazteko.
- **Politika soziosanitariao-** Gaixoak ospitaletatik egoitzetara eraman nahi dituzte, diru publikoa aurrezterren.

III- TELEBISTA AUTONOMIKOAK PRIBATIZATZEKO BULTZADA

Ministro-Kontseiluak Ikus-Entzunezko Komunikazio Lege Orokorra aldatzeko legegai bat bidaliko du espainiar parlamentura, “telebista autonomikoa kudeatzeko moduak malgutzeko”. Autonomia-Erkidegoek dagokien lurralde-esparruan telebista zerbitzu publikoa nola antolatuko den erabaki ahal izango dute.

Ikus-entzunezko komunikazio zerbitzu publikoa ematea erabakiz gero, honako kudeaketa aukerak erabaki ahal izango dituzte legegaiaren arabera:

- Kudeaketa zuzena, bere programazioaren ekoizpena eta edizioa guztiz edo zatika besteren esku uzteko aukera dagelarik, zerbitzu informatiboak barne;
- Zeharkako kudeaketa;
- Lankidetzeta publiko-pribatuko beste mota batzuk.

Ikus-entzunezko zerbitzu publikoa ez ematea erabakitzen badute, lizentzia pribatuak esleitzeo dagozkien lehiaketak deitu ahal izango dituzte. Telebista zerbitzu publikoa aurrez ematen ari diren Autonomia-Erkidegoek zerbitzu publikoa lizentzia bihurtu ahal izango dute, gero besteren esku uzteko, berariazko legediaren arabera.

Autonomia mailako zerbitzu publikoa ematen dutenek akordioak egin ahal izango dituzte edukien ekoizpen, edizio eta emisioa partekatzeko, jarduera eragingarriagoa izan ahal dadin.

Azkenik, autonomia mailan zerbitzua ematen duten erakundeek beren jarduera aurrekontu-egonkortasunaren baitan egingo dutela bermatzeko telebista publiko autonomikoei finantzei dagokienez hainbat betebeharrak ezartzen zaizkie, besteak beste:

- Urteko gehieneko gastu muga, gainditu ezinena.
- Urteko memoriak eta kudeaketa-txostenak finantza-oreka eta -iraunkortasuna betetzen dela berriaz aipatuko dute, eta orekatuta ez egotekotan, eragindako galera edo defizitaren adinako kopuruan murriztu beharko dituzte gastuak ondoko ekitaldian.
- Autonomia-erkidego bakoitzean dagokion erakundeari txosten bat helarazi beharko zaio, non adieraziko den telebista publikoaren kudeaketa bat datorrela aurrekontu-egonkortasun eta finantza-iraunkortasun Lege Organikoarekin.
- Autonomia-erkidegoek kontrol sistemak eratu beharko ditzute, beren telebista publikoen finantzak behar bezala kontrolatuko dituztela bermatzeko.

IV- ELAREN IRITZIA


ELAk hau irizten die Gobernuaren erabakiei:

- Rajoyren gobernuak plazaratu dituen gastu murrizketekin atzeraldi ekonomikoa areago larrituko da, gizarte-babes maila murriztu eta langabezia gehituko da. Gizartea txirotzeko politikari eusten diote (zuzenean, hezkuntza eta osasungintzan enplegua suntsituz, sendagaien gastuan ekarpenak gehituz eta unibertsitate-tasak igoaz; zeharka, gizarte-gastua murriztuz eta krisia areagotuz). ELAk exijitzen du politika neoliberal hauek erabat alda daitezela, defizit publikoa murrizteko helburua beste guztien gainera jartzen baitute, herritar gehienek bizi- eta lan-baldintzen kaltetan. Ezin da onartu Europar Batasuneko gobernuak erabaki duten esparrua, gero murrizketak egiteko aitzakia bilakatzen dena.
- Gero eta hurbilago daukagu eskenatoki greziarra. Azken urteotan jendearen erosteko ahalmena asko murriztu da; enplegua erruz suntzitzen ari da; pobreak gora egin du, eta krisia gero eta larriagoa da, gizartearen kalterako eta kapital zein merkatuaren onerako.
- Murrizte-politika hauei kargu hartzen dieten iritzi guztiei entzungor egiten zaie, gero eta gehiago diren arren. Murrizketen aurka txostenak bata besteari atzetik ari dira kaleratzen (NDF, ELGE, NBE, etab.). Esaterako, NDFak argitaratu duen azken txostenean espainiar gobernuari gomendatzen dio ez dezala ahalegin guztia gastua murrizten xahutu, eta hazkundea ere bultzatzea, krisia gainditzeko formula gisa.
- Murrizketa hauen ondorioz osasun- eta hezkuntza-sistemak zeharo okertzen dira. Estaldura publikoak narriatu ahala, sistema pribatuak

bultzatzen dira. Hego Euskal Herrian azken hamarkadetan sistema publikoari egin zaion erasorik latzena dugu hau.

- Murrizketa hauek erabateko eragin kaltegarria dute osasun eta hezkuntza publikoaren kalitatean. Zerbitzu publikoak kaltetzeak, pribatuaren alde egitea da gainera. Murrizketa hauek azken hamarkadetan Hego Euskal Herriko zerbitzu publikoen aurka egin den erasorik bortitzena dira. Jadanik Europar Batasuneko azken muturrean zegoen Hego Euskal Herriko zein Espainiar Estatuko gastu soziala txikiagotzen da. Hego Euskal Herriko osasun publikoko gastua inguruko estatuenarekin alderatzen badugu, Europakoa BPGd-aren %6,8a izan zen bitartean, EAEn BPGd-aren %4,8koa izan zela ikusi dezakegu, eta Nafarroan BPGd-aren %4,7koa. Honela, EAeko defizita Europako bataz bestekoarekiko BPGd-aren 2 puntukoa da, eta 2,1 puntukoa Nafarroan.


GASTU PUBLIKOA OSASUNEAN, 2008



Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoaren Urteko Kontuak 2008, *Eustat. Aurrekontu gauzatua* (Nafarroako Gobernua), IEN, Eurostat.

Hezkuntzan ere antzekoa da egoera. Europako 2008ko (argitaratu diren azken datuak) bataz besteko gastu publikoa hezkuntzan BPGd-aren %5,1koa izan zen, EAEn %3,8koa eta Nafarroan %3,3koa izan zen bitartean. EAeko defizita Europarekiko 1,3 puntukoa da beraz, eta Nafarroakoa BPGd-aren 1,8 puntukoa.

GASTU PUBLIKOA HEZKUNTZAN, 2008



Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoko Arlo Publikoaren Urteko Kontuak 2008, Eustat. Aurrekontu gauzatua (Nafarroako Gobernuak), IEN, Eurostat.

- Murrizketak biztanleriaren beharrezanaren aurkakoak dira. Guztiei egiten die kalte, baina batik bat gutxien dutenei. Ezin dira onartu.
- Eusko Jaurlaritzak zein Nafarroako Gobernuak aurrez ere Espainiako gobernuak ezarritako murrizketak aplikatu dituzte. Begi bistakoa da ez daudela murrizketen aurka. Eusko Jaurlaritzak 2012an osasunean aurreikusitako gastua 3.403,1 milioi eurotako da, 2010ean baino 139,2 milioi gutxiago eta 2011ko itxiera aurreikuspenean baino 3,5 milioi gutxiago. Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ierketa Saileko aurrekontua 2.645,2 milioietakoa da 2012an, iaz baino 78,6 milioi gehiago baino 2010ean baino 138,4 milioi txikiagoa. Nafarroako Gobernuak, UPNren eta PSNren eskutik, osasuneko eta hezkuntzako gastua ere murriztu du. Osasuneko aurrekontua 914,6 milioi eurotako da 2012an, 2010ean baino 121,5 milioi gutxiago eta 2011n baino 58,5 milioi gutxiago. Hezkuntzako aurrekontua ere asko murriztu da. 2012an 598,9 milioietako gastua aurreikusten da, 2010ean baino 69,2 milioi gutxiago eta 2011n baino 48,5 milioi gutxiago. Beraiek murrizketak egiten ari, eta Patxi Lopez edota Roberto Jimenez bezala publikoki murrizketen aurka azaltzen direnen zurikeria arbuizaten dugu. Gobernu hauek hartu dituzten erabakien ondorioz erosteko ahalmenak galera handia izan du; ehundaka lanpostu galtzen da; ordezkapenak ez dira egiten, edo berandu; eskola-orduak gehituko dira; gela bakoitzeko ikasle kopurua handiagoa izango da; beharrezan berezietarako baliabideak gutxituko dira; lan-karga handiagoak; beharrezko diren lanpostu berriak ez dira sortzen... horrek guztiak hezkuntzaren kalitatea bera arriskuan jartzen du. Ezin da onartu Iribas sailburuak soilik erabakia hartzeko moduari

kargu hartzea, eta Celaa sailburuak esatea murrizketak ez dituela onartzen, eta ez dituela aplikatuko, "derrigortzen ez badute".

- Eskumenetan berriro ere erasoak jo dute. Espainiar gobernuek murrizteko erabakiak osasungintzan eta hezkuntzan inposatu nahi ditu, biak ere bete-betean Erkidegoei dagozkien arloak izanagatik.
- ELAk EAeko eta Nafarroako administrazioei exijitzen die uka dezatela murrizketa hauek aplikatzeko aukera. Esaterako, HEHan 35 orduko lan-astea 1999an ezarri zuen Nafarroako Parlamentuak, eta 2000n Eusko Legebiltzarrak, Eskubide Sozialen Kartako legeetan; legeok Herritarren Lege-Ekimenen fruitua izan ziren, 100.000tik gora sinadurak babestuta aurkeztu ziren ekimenak. Beraz, ELAk ez du onartuko inongo administrazioek esaterik neurri hori aplikatzera behartuta dagoela. Arrazoi kompetentzial, politiko eta sozialak badaude HEHan 37,5 orduko lanaldia eta osasun zein hezkuntzan murrizketak ez aplikatzea defenditzeko.
- ELAk Hego Euskal Herriko erakunde guztiei exijitzen die murrizte-politikak bazter ditzatela eta zerbitzu publikoak garatzeko konpromisoa har dezatela. Murrizketekin ados ez badaude, esateaz gainera, ez ditzatela aplikatu; euskal erakundeen eskumenak defenditu behar dituzte. HEHko erakundeetako arduradunek aurpegi bikoitza dute: Batetik prentsaren aurrean Ongizate-Estatuaren aitzintdari gisa agertzen dira, baina bestetik zerbitzu publikoetan murrizketak aspaldian ari dira aplikatzen, azken erabakiok ezagutu baino askoz lehenago. Patxi Lopezek dio Euskadiko Ongizate ereduak defendituko duela, eta ez duela Lehendakariak hura, ez politika publikoak akabatuko. Bitartean, ordea, bere Osasun sailburuak dio osasun arloko neurrien %80arekin bat datorrela, 37,5 orduko lan-astearekin bezala.
- ELAk mobilizazio sindikal eta sozialari eutsiko dio, otsailaren 25eko manifestazioaren eta martxoaren 29ko greba orokorraren ildoari jarraiki. Gure asmoa murrizketei aurre egitea da, eta eskatzea Hego Euskal Herriko administrazio guztiei ez ditzatela aplikatu; goitik behera aldatu behar dituzte zerga- eta aurrekontu-politikak. Horrela egin ahal izango dituzte hain beharrezko diren enplegu-politikak eta gero eta larriagoak diren beharrezko sozialak: gizarte-prestazioak, osasungintza, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, etxebizitza, ingurumena, etab. Politikak aldatu beharra gero eta premia handiagoa ari da bihurtzen.